Alcalde-Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkateordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.

D. Arcadio Benítez Dávila jauna.

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

D. Jon Iraola Iriondo jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

D. Gorka Errasti Bernedo jauna.

Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.

D. Iñaki Penedo Eubieta jauna.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.

Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.

D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.

Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.

Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta andrea.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echaniz Petralanda andrea.

Interventor - Kontuhartzailea

D. Zigor Eguia Lejardi jauna.

Eibarko hirian, bi mila eta hamazortziko uztailaren hogeita lauan, arratsaldeko zazpi eta erdiak izanik, Udal Batzarra bildu zen bilera berezian, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a veinticuatro de julio de dos mil dieciocho y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente menciona-dos/as.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren atal bakarra irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

1. ATALA

PUNTO 1º

2018ko maiatzaren 28ko eta ekainaren 26ko bilkurei dagozkien akta-zirriborroak onartzea.

Aprobación de los borradores de actas correspondientes a las sesiones de 28 de mayo y 26 de junio de 2018.

Aguirre andreak dio aktetan ITs hitza agertzen dela, eta ITE dela; hortaz, zuzenketa eskatu du.

La señora Aguirre indica que en las actas aparece la palabra ITs cuando se trata de ITE, por lo que solicita la corrección.

Mendicute jaunak adierazi du aukera baliatu nahi duela udal idazkariaren lana eta egonarria eskertzeko urte hauetan guztietan, eta adorea opa diola idazteko duen azken akta honetarako.

Indica el señor Mendicute que desea aprovechar para agradecer el trabajo y la paciencia de la Secretaria municipal durante estos años y desearle ánimo para esta última acta que le queda por redactar.

Akta-zirriborroak bozkatu dira, Aguirre andreak eskatutako zuzenketa barne, eta honako emaitza honekin onartu:

Sometidos a votación los borradores de acta con la corrección solicitada por la señora Aguirre, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (16): alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos afirmativos (16): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga, Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak (5): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU).

Abstenciones (5): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU).

2. ATALA. Agiriak eta komunikazioak.

PUNTO 2º Despachos y comunicaciones.

Alkateak emandako ebazpen hauen berri eman zaio udalbatzari:

Se da cuenta de las siguientes Resoluciones de Alcaldía:

“ALKATETZAREN EBAZPENA.

“RESOLUCION DE ALCALDIA.

Udal Aurrekontuko kreditu gaikuntzaren hirugarren espedientea.

Tercer expediente de habilitación de creditos del Presupuesto municipal.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de

abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31.artikuluan ezarritakoari jarraituz, ondoren aipatuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez 2018. urteko udal aurrekontuaren partidetan izendatutako kredituak ez direlako behar adinakoak,

19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2018,

HAUXE ERABAKI DUT:

RESUELVO:

Udal Aurrekontuaren kreditu gaikuntzaren Hirugarren espedientea onartzea. Hona hemen zenbatekoak:

la aprobación del Tercer expediente de habilitaciones de crédito del Presupuesto Municipal, cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Kap | Izendapena | Euroak | Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|---|---|---|
| 7 | Kapital transferentziak | 2.300.000,00 | 7 | Tranferencias de capital | 2.300.000,00 |
| Guztira gehikuntzen adina | | 2.300.000,00 | TOTAL igual a los aumentos | | 2.300.000,00 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

II. CREDITOS EN AUMENTO

| Kap | Izendapena | Euroak | Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak. | 120.000,00 | 1 | Gastos de personal. | 120.000,00 |
| 2 | Gast.ondas.arrunt,eta zerb. | 70.000,00 | 2 | Gast.b.corrient. y serv. | 70.000,00 |
| 6 | Inbertsio errealak | 10.000,00 | 6 | Inversiones reales. | 10.000,00 |
| 7 | Kapital transferentziak | 2.100.000,00 | 7 | Transferenc.de capital | 2.100.000,00 |
| Kredituen Gehikuntza, guztira | | 2.300.000,00 | TOTAL Créditos en aumento | | 2.300.000,00 |

Eibarren, 2018ko ekainaren 29an
ALKATEA,
Miguel de los Toyos Nazabal."

Eibar, 29 de junio de 2018
EL ALCALDE,
Miguel de los Toyos Nazabal."

"ALKATETZAREN EBAZPENA

2018ko udal aurrekontuko kreditu transferentzien hirugarren espedientea

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluak dioenari jarraituz; eta, ondoren aipatuko diren kontzeptu hauei dagozkien gastuak egiteko beharra eta premia dagoenez, 2018ko Udal Aurrekontuaren partidetan horretarako

"RESOLUCION DE ALCALDIA

Tercer expediente de transferencias de credito del Presupuesto Municipal 2018.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos

izendatutako kredituak urri geratu direlako,

consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2018,

HAUXE ERABAKI DUT

Udal Aurrekontuko Kreditu Transferentzien Hirugarren espedientea onartzea ondoren aipatzen diren zenbatekoetan:

RESUELVO

la aprobación del Tercer Expediente de Transferencias de Créditos del Presupuesto, cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

RESUMEN POR CAPITULOS

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gast. ondas. arrunt eta zerb. | 60.000,00 |
| 5 | Kreditu globala eta best.ust. | 6.800,00 |
| Guztira, gehikuntzen adina | | 66.800,00 |

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2 | Gtos. en B. corrient. y serv. | 60.000,00 |
| 5 | Crédito global y otr.imprev. | 6.800,00 |
| Total igual a los aumentos | | 66.800,00 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gast. ondas. arrunt eta zerb. | 6.800,00 |
| 4 | Transferentzia arruntak. | 60.000,00 |
| Kredituen Gehikuntza, guztira | | 66.800,00 |

II.CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2 | Gtos. en B. corrient. y serv. | 6.800,00 |
| 4 | Transferenc. corrientes. | 60.000,00 |
| Total Créditos en aumento | | 66.800,00 |

Eibar, 2018ko uztailaren 11n

ALKATEA,

Miguel de los Toyos Nazabal.”

Eibar, 11 de julio de 2018

EL ALCALDE,

Miguel de los Toyos Nazabal.”

“<u>ALKATETZAREN EBAZPENA</u>

<u>Udal Aurrekontuko kreditu gaikuntzaren laugarren espedientea</u>

“<u>RESOLUCION DE ALCALDIA.</u>

<u>Cuarto expediente de habilitacion de créditos del Presupuesto Municipal.</u>

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31. artikuluak ezarritakoari jarraituz, ondoren aipatuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez 2018. urteko Udal Aurrekontuaren partidetan izendatutako kredituak ez direlako behar adinakoak.

HAUXE ERABAKI DUT

Udal Aurrekontuaren kreditu-gaikuntzaren Laugarren espedientea onartzea. Hona hemen horren zenbatekoak:

LABURPENA KAPITULUKA

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 3 | Tasak eta bestel. zergak | 3.500,00 |

| | |
|---|---|
| Guztira, gehikuntzen adina | 3.500,00 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gast.ondas.arrunt,eta zerb. | 3.500,00 |

| | |
|---|---|
| Kredituen Gehikuntza guztira | 3.500,00 |

Eibar, 2018ko uztailaren 11n

ALKATEA,

Miguel de los Toyos Nazabal."

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2018,

RESUELVO

la aprobación del Cuarto expediente de habilitaciones de crédito del Presupuesto Municipal, cifrado en las siguientes cantidades:

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 3 | Tasas y otros ingresos | 3.500,00 |

| | |
|---|---|
| TOTAL igual a los aumentos | 3.500,00 |

II.CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2 | Gast.b.corrient. y serv. | 3.500,00 |

| | |
|---|---|
| TOTAL Créditos en aumento | 3.500,00 |

Eibar, 11 de julio de 2018

EL ALCALDE,

Miguel de los Toyos Nazabal."

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

3. ATALA

PUNTO 3º

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordetik.

De la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio.

1.- 2017ko Kontu Orokorra onartzea.

1. Aprobación de la Cuenta General del año 2017.

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“2017. urteko Kontu Orokorra jendearen aurrean egon da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikuluak ezarritakoa betez; inork ez dio ez erreklamaziorik ezta idatzizko iradokizunik ere egin.

“La Cuenta General del año 2017 ha sido expuesta al público en cumplimiento de lo establecido en el art. 63.3 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y no se han presentado reclamaciones ni observaciones por escrito a la misma.

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak, 2017ko Kontu Orokorra ontzat emateko bozketa egin du, eta, Udal Osoko bilkurari proposatzen dio, Miguel de los Toyos, Ana Tellería, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, Iñaki Penedo eta Gorka Errasti jaun-andreen aldeko botoekin (6) eta Elena Ibáñez, Eva Juez, eta Mª Jesús Aguirre andreen abstentzioekin (3), 2017ko Kontu Orokorra onartzea.”

La Comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la aprobación de la Cuenta General 2017, con 6 votos a favor de D.Miguel de los Toyos, DªAna Tellería, D.Alberto Albístegui, DªPatricia Arrizabalaga, D.Iñaki Penedo y D.Gorka Errasti) y 3 abstenciones de (DªElena Ibáñez, DªEva Juez y Dª Mª Jesús Aguirre) se propone al Pleno Municipal la aprobación de la Cuenta General del año 2017.”

Lehenik eta behin, Lamarain andreak hartu du hitza; adierazi du Kontu Orokorra badutela, eta bere taldearentzat txosten hori dela pistarik onenak ematen dituena gobernu-taldearen lanari buruz, are Agintaldi Planak baino gehiago ere, zeinak asmo eta proiektuak jasotzen baititu; azken finean, Kontu Orokorrak erakusten du zer burutu den eta zer ez.

Aurrerago dio ikusten dela diru-gerakina oso kopuru handia dela eta hori gertatzen dela gauzak ez direlako aurrera eraman, edo egiten direnean aurrekontua puztu egiten delako; gainera, gerakina handituz doa urtez urte.

Jende askok pentsa dezake, jarraitu du, horrek erakusten duela kudeaketa ona dagoela aurreikusitakoa baino gutxiago gastatzen delako, baina badakigu hori ez dela horrela; hori gertatzen da gauza asko ez direlako aurrera ateratzen, eta, hortaz, gero eta diru gehiago dago gerakinean, gero, urtean zehar, gauzak nahi diren moduan egiteko; eta, hala, 2016an gerakina 6,4 milioikoa zen, eta 2017an 16,8 milioikoa.

Jarraitu du esaten orain dela hilabete batzuk ezezko borobil bat eman ziotela aurrekontuari —zeina EAJren babesarekin aurrera atera zen— eta orduan esan zela oso ona zela Eibarrerako; baina hilabete batzuk igaro dira eta ez dute ezer nabaritzen.

Amaitu du esanez bere taldea ez dela

Interviene en primer lugar la señora Lamarain quien afirma que disponen de la Cuenta General, y que para su grupo este informe es el que les da mejores pistas sobre el trabajo del equipo de gobierno, más incluso que el Pan de Legislatura, que recoge unos deseos y unos proyectos; pues en definitiva la Cuenta General muestra lo que se ha llevado a acabo y lo que no se ha llevado a cabo.

Dice más adelante que se aprecia que el remanente es muy cuantioso y que ello es porque las cosas no se han llevado adelante, o porque cuando se hace el presupuesto se infla mucho; constatándose además que el remanente se va agrandando año a año.

Mucha gente puede pensar, prosigue, que esto muestra que hay una buena gestión, porque se gasta menos de lo previsto, pero esto ya se sabe que no es así, pues es debido a que no se llevan adelante muchas cosas, lo que origina que cada vez haya más dinero en el remanente para luego a lo largo del año, llevar las cosas como se desea, y que es así que en el año 2016 el remante era de 6,4 millones y en el 2017 era de 16,8 millones.

Continúa diciendo que hace unos meses dieron un no rotundo al presupuesto, que se sacó con el apoyo del PNV, y que entonces se dijo que era muy bueno para Eibar; pero que han pasado unos meses y no lo notan.

Finaliza afirmando que su grupo no se

identifikatzen aurrekontuarekin, eta ezta Kontu Orokorrarekin ere, baina badakitela azken finean emaitza bati buruzko txosten bat dela, eta, hortaz, abstenitu egingo direla.

Ondoren Ibañez andreak hartu du hitza; hasi da esaten Kontu Orokorra erakundearen argazki finkoa dela, baina balorazio batzuk egin daitezkeela, aurreko ekitaldiko likidazioa ikusita.

Gaineratu du, badirudiela egoera finantzario inbidiagarri baten aurren gaudela, eta, hala, 2016an 15,2 milioiko gerakina izan zela eta 2017an ia 17 milioikoa, eta nabarmen murrizten ari den zor bizi bat; baina adierazi duenez hori dena ez inbertitzeagatik gertatzen da, eta ia bost milioiko aurrezki garbia dugu, baina berak galdetzen du ea zertarako den, ezpada hauteskunde aurreko beherapenetarako.

Esaten da etorkizuneko erronkei arazo ekonomikorik gabe egin ahal izan zaiela aurre, baina ideiak falta izan dira, eta, gainera, berak ez du izan aurrera atera diren etorkizuneko erronken berri.

Gaineratu du, herritar gisa, esango lukeela zerbait ez dabilela ondo eta norbait despistatuta dabilela, beste alde batera begira.

Iaz, jarraitu du Ibañez andreak, alkate jaunak zioen garrantzitsuena zela gastua konprometitua egotea, zeren eta

identifica con el presupuesto, y tampoco con la Cuenta General, pero que ya saben que en definitiva es un informe sobre un resultado y que por tanto, se van a abstener.

Interviene a continuación la señora Ibañez quien comienza diciendo que tal como se ha dicho, la Cuenta General es la foto fija de la institución, pero que sí que sobre ella se puede hacer una serie de consideraciones a la vista de la liquidación del ejercicio anterior.

Añade que parece que se está ante una situación financiera envidiable, y así en el 2016 el remanente fue de 15,2 millones y en el 2017 de casi 17 millones, y una deuda viva que se está reduciendo considerablemente; pero que ello es a base de no invertir, y que se tiene un ahorro neto de casi cinco millones, pero que se pregunta para qué, si acaso para rebajas preelectorales.

Se dice, prosigue, que se han podido afrontar retos de futuro sin problemas económicos, pero lo que ha faltado son ideas, y además, ella no se ha enterado de los retos de futuro que se han afrontado.

Añade que como ciudadana diría que algo no está funcionando y que hay alguien despistado, y mirando hacia otro lado.

El año pasado, continúa, el señor Alcalde decía que lo importante era que el gasto estuviese comprometido, pues entre que

proiektuak onartu bitartean, lizitaziora atera, beherapen larregizkoak ikusi, eta kontratuak sinatu artean, urtea igarotzen baita; baina orain ulertzen du 2017an egin dena, udalaren webgunean bertan agertzen baita: Isasiko espaloia, Karmen kalean 1, 2, 3 eta 5ean espaloiak birmoldatzea, baserri inguruetako asfaltatuak, biomasa-galdara jartzea Iturburuko ikastolan, kultura sailaren eraberritzea, Gizartekintzan harrera eta bulego ingurua eraberritzea.

se aprueban los proyectos, se licitan, se miran las bajas temerarias, y se firman los contratos, pasa el año; pero ahora entiende lo que se ha ejecutado en el 2017 porque aparece en la propia página web del Ayuntamiento: acera de Isasi, remodelación de las aceras en Karmen Kalea, 1, 2, 3 y 5, asfaltados rurales, instalación de caldera de biomasa en la ikastola de Iturburu, reforma del área de cultura, reforma de la zona de atención al público y despachos en Gizartekintza.

Eta ezin da ahaztu, gaineratu du, obra bat egon beharko litzatekeela 2017an exekutatu beharrekoa, alegia Plaza Barriaren koexistentzia gunea, zeina, aurrera eraman ez denez, Udalak 25.000 euro itzuli behar izan dituen, eta, ez da horretaz inolako azalpenik eman.

Y no se puede obviar, añade, que tendría que haber una obra que se tendría que haber ejecutado en el 2017 y que es la coexistencia del espacio de la plaza Barria, que por su inejecución el Ayuntamiento ha tenido que devolver 25.000 euros, sobre lo que por cierto no se ha dado ninguna explicación.

Jarraitu du esanez Errebaleko azpiegitura hor dagoela, eta inor ez dela horretaz gogoratzen, ezta erantzukizunak onartzen ere.

Prosigue diciendo que está la infraestructura de Errebal de la que nadie se acuerda, ni sobre la que nadie asume responsabilidades.

Adierazi du, halaber, garrantzitsua dela aurrekontuak epearen barruan onartzea, eta, hala, 2016an aurrekontuaren % 76 exekutatu zela eta 2017an ez zela iritsi ezta % 72ra ere.

Afirma así mismo que por otro lado, está la importancia de aprobar en plazo los presupuestos, y que así en el 2016 se ejecuta el 76% del presupuesto, y en el 2017 no se llega ni al 72%.

Oraina kezkagarria da, langabezia-tasa kezkagarria da eta herrian gabeziak daude.

Hay un presente preocupante, continúa, una tasa de paro preocupante, y unas deficiencias de ciudad.

Amaitu du esanez 2017an, inbertsioen exekuzioa % 35ekoa izan dela, eta gobernu hau erakusten ari dela ez daukala gaitasunik inbertsioei aurre egiteko, orain

Finaliza afirmando que en el 2017 la ejecución en inversiones ha sido del 35%, y que este gobierno está mostrando no tener capacidad para afrontar inversiones,

gehiago egiten duela baietsiz, baina berak askotan entzun du Obra Saila kolapsatuta dagoela.

pretendiendo ahora hacer más, cuando ha oído muchas veces que el Departamento de Obras está colapsado.

Jarraian alkate jaunak hartu du hitza; esan du ulertzen duela batek datuen interpretazioa egiten duenean, operatibotasun ezaren eta gauzak ez egitearen diskurtsoaren barruan egiten duela; baina denek dakite hamasei milioi eurori buruz hitz egiten denean ez dela egia esaten ari, zeren eta gerakin kontzeptua eskuragarri izatearena baino ez da; izan ere, konprometitutako gerakina kontzeptu teoriko bat da, baina egiatan ez da eskuragarritasun bat; gauzak horrela, hamasei milioi horiek zortzira jaisten dira, eta zortzi horietatik erreserba espezifiko bat dago Errebaleko obrari ekiteko; obra horri buruz, izan ere, bai hitz egiten dela, eta, jada proiektuaren egokitzapena adjudikatu egin da eta espero da lizitazioa udatik bueltan egin ahal izango dela.

Egia da, jarraitu du, exekuzio-maila ez dela iritsiko % 40ra, baina amaitutako proiektuena; berak erronka egingo luke begiratzeko gaur egun 2017ko proiektuak ea zer exekuzio-fasetan dauden, eta ikusiko da amaitutako proiektuen kopurua halako bi dela.

Gaineratu du oso zaila dela obra bat hamabi hilabeteetan hasi eta bukatzea, eta hori ez dela bakarrik udal honetan gertatzen, baizik eta oso ohikoa dela Administrazioan, eta Administrazioaren

A continuación interviene el señor Alcalde quien afirma que entiende que, cuando uno hace la interpretación de los datos, lo hace bajo el discurso de la inoperatividad y de no hacer; pero que todos saben que cuando se habla de dieciséis millones de euros no se está diciendo la verdad, pues el concepto de remanente no es otro que el disponible, ya que el remanente comprometido es un concepto teórico, pero en realidad no es una disponibilidad; siendo así que esos dieciséis millones bajan a ocho, y que de esos ocho existe una reserva específica para poder acometer la obra de Errebal, obra de la que sí se habla y sobre la que de hecho ya se ha adjudicado la adaptación del proyecto y se espera que la licitación se pueda hacer a la vuelta del verano.

Efectivamente, prosigue, el grado de ejecución no llegará al 40%, pero de proyectos terminados, porque retaría a que se mire a día de hoy los proyectos del 2017 en qué fase de ejecución están, ya que se verá que se está cerca del doble de proyectos terminados.

Añade que es muy difícil que una obra pueda empezar y terminar en doce meses, y que esto no ocurre sólo en este Ayuntamiento, sino que es muy habitual en la Administración, y en organizaciones

mende dauden erakundeetan.
Beti defendatu du, jarraitu du, udal batean inportanteena gauzak egiteko konpromisoa dela, eta 2017ko aurrekontuan jasotakoa aurrera eramateko konpromisoa dago eta egiten ari da, eta exekuzio-maila abenduaren 31n argazki finko bat da, amaiera-maila baxua ematen duena, baina ez da hor geratu, zeren obrek exekutatzen jarraitu baitute.
Berriz ere adierazi du aipatzen dituen hamasei milioi horietatik zortzi daudela eskuragarri, eta horietatik zati bat erreserbatuta dagoela Errebaleko obrarako eta beste zati bat desjabetze bat ordaintzeko, kredituekin ere ordain litekeena; baina gerakina edukita, logikoena da zati hori lege-obligazio horretara bideratzea, eta, hala, beste zati bat geratzen da erabilera librekoa, zeinari buruz Udalak eta osoko bilkurak erabakiko baitute zer egin.

Berriz ere Lamarain andreak hartu du hitza; adierazi du agian zortzi milioiri buruz hitz egiten dela ematen duelako hamaseiekin alderatuta gutxi direla, baina zortzi milioi diru dezente dela.

Gaineratu du gerakinak daukana zera dela: gobernu-taldeari aukera ematen diola nahi duen moduan erabiltzeko, eta bere taldeak aldarrikatzen duena da akordioetara iristea gerakina inbertitzeko.
Horrek ez du esan nahi, amaitu du, ados

que dependen de la Administración.
Siempre ha defendido, continua, que lo importante de un ayuntamiento es el compromiso de hacer, y sobre lo recogido en el presupuesto del 2017 existe el compromiso de hacerlo, y se está haciendo, y el grado de ejecución a 31 de diciembre es una foto fija que da un grado de finalización bajo, pero que no se ha quedado ahí, pues las obras se han seguido ejecutando.
Insiste en que de los dieciséis millones que dice de remanente se dispone de ocho, y que de ellos parte está reservado a la obra de Errebal y parte al pago de una expropiación, que se podría pagar también con créditos; pero que teniendo remante, lo lógico es destinarlo a esta obligación legal, quedando otra parte de libre disposición sobre la que el Ayuntamiento y su pleno decidirá qué hacer con ella.

Interviene de nuevo la señora Lamarain para afirmar que igual se habla de ocho millones porque parece que comparándolos con los dieciséis son pocos, pero que ocho millones es bastante dinero.
Añade que lo que tiene el remante es que da la oportunidad al equipo de gobierno de utilizarlo como quiera, y que su grupo viene reclamando la posibilidad de llegar a acuerdos para invertir el remanente.
Ello no quiere decir, concluye, que no

ez daudenik Errebaleko obrarekin edo desjabetzearekin, baina gerakina dagoenean akordioetara iristen saiatu beha da, aurrekontuarekin egiten den bezala.

estén de acuerdo con la obra de Errebal, o con la expropiación, pero cuando hay remante hay que intentar llegar a acuerdos, como se hace con el presupuesto.

Aurreko irizpena botaziora eraman eta onartu egin da honako emaitza honekin:

Sometido a votación el precedente dictamen, es aprobado con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (10): alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos afirmativos (10): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga, Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

<u>2.- Udal Inbentarioa onartzeko proposamena (data: 2017 abenduak 31).</u>

<u>2.- Propuesta de aprobación del Inventario Municipal a 31 de diciembre de 2017.</u>

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Idazkari Nagusiak 2017ko abenduaren

“La Secretaria General presenta el

31ko data duen Udal Ondasunen Inbentarioa aurkeztu du, Toki Erakundeetako Ondasunen Araudiaren 34. artikuluak dioena betez.

Inventario de Bienes a fecha 31 de diciembre de 2017, en aplicación del art. 34 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

Iritziak eman ondoren, Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak proposamena bozkatu du eta emaitza hau izan da: aldeko botoak 4, Miguel de los Toyos, Ana Tellería, Alberto Albístegui eta Patricia Arrizabalaga jaun-andreenak; eta 5 abstentzio, Iñaki Penedo, Gorka Errasti, Elena Ibáñez, Eva Juez, eta Mª Jesús Aguirre jaun-andreenak. Horren ondorioz, Udalbatzari, 2017ko abenduaren 31ko Udal Ondasunen Inbentarioa onartzea proposatzen dio.

Tras un cambio de impresiones, la Comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con el siguiente resultado: 4 votos a favor de D.Miguel de los Toyos, Dª Ana Telerría, D. Alberto Albístegui, y DªPatricia Arrizabalaga y 5 abstenciones de D. Iñaki Penedo, D.Gorka Errasti, DªElena Ibáñez, DªEva Juez y Dª Mª Jesús Aguirre se propone, propone al Pleno Municipal la aprobación del Inventario Municipal de Bienes a 31-12-2017.

**2016ko INBENTARIOAREN BALORAZIOA / VALORACIÓN INVENTARIO 2016**

| | |
|---|---|
| 01. HIGIEZINAK/INMUEBLES | 113.507.468,21 |
| 02. ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES | 55.812,23 |
| 03. IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO | 134.448,65 |
| 04. BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS | 1.129.887,27 |
| 05. IBILGAILUAK/VEHÍCULOS | 709.380,27 |
| 06. ABEREA/SEMOVIENTE | 570,96 |
| 07. ALTZARIAK/MUEBLES | 5.140.870,81 |
| 08. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES | 4.447.617,78 |
| **GUZTIRA/TOTAL** | **125.126.056,18** |

## 2017ko ALTAK / ALTAS 2017

| | |
|---|---|
| 01. HIGIEZINAK / INMUEBLES | 4.477.164,02 |
| 02. ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES | 14.076,00 |
| 03. IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO | 0,00 |
| 04. BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS | 0,00 |
| 05. IBILGAILUAK/VEHÍCULOS | 23.299,01 |
| 06. ABEREA/SEMOVIENTE | 0,00 |
| 07. ALTZARIAK/MUEBLES | 319.157,25 |
| 08. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES | 0,00 |
| **ALTAK, GUZTIRA / TOTAL ALTAS** | **4.833.696,28** |

# 2017ko BAJAK / BAJAS 2017

| | |
|---|---|
| 01. HIGIEZINAK / INMUEBLES: | 0,00 |
| 02. ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES: | 0,00 |
| 03. IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK / BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO | 0,00 |
| 04. BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS | 707.998,15 |
| 05. IBILGAILUAK/VEHÍCULOS | 2.272,45 |
| 06. ABEREA/SEMOVIENTE | 0,00 |
| 07. ALTZARIAK/MUEBLES | 51.970,55 |
| 08. ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES | 3.671.030,94 |
| **BAJAK, GUZTIRA / TOTAL BAJAS** | **4.433.272,09** |

**VALORACIÓN INVENTARIO 2017 / 2017ko INBENTARIOAREN BALORAZIOA**

| | | |
|---|---|---|
| 1. KAPITULUA / 1º CAPÍTULO | HIGIEZINAK/INMUEBLES | 117.984.632,23 |
| 2. KAPITULUA / 2º CAPÍTULO | ESKUBIDE ERREALAK / DERECHOS REALES | 69.888,23 |
| 3. KAPITULUA / 3º CAPÍTULO | IZAERA HISTORIKOKO ONDASUNAK BIENES DE CARÁCTER HISTÓRICO | 134.448,65 |
| 4. KAPITULUA / 4º CAPÍTULO | BALORE HIGIGARRIAK / VALORES MOBILIARIOS | 421.889,12 |
| 5. KAPITULUA / 5º CAPÍTULO | IBILGAILUAK / VEHÍCULOS | 730.406,83 |
| 6. KAPITULUA / 6º CAPÍTULO | ABEREA/SEMOVIENTE | 570,96 |
| 7. KAPITULUA / 7º CAPÍTULO | ALTZARIAK/MUEBLES | 5.408.057,51 |
| 8. KAPITULUA / 8º CAPÍTULO | ONDASUN ETA ESKUBIDE ITZULGARRIAK / BIENES Y DERECHOS REVERTIBLES | 776.586,84 |
| **GUZTIRA/TOTAL** | | **125.526.480,37** |

# 2017ko ALTAK, XEHETASUNAK / DETALLE ALTAS 2017

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.01** | | **ERAIKUNTZAK/CONSTRUCCIONES** | |
| MAT | 1045-00004 | Matxaria 6an etxebizitza/Vivienda en Matxaria nº 6 | 31.094,43 |
| | 1025-00004 | Txonta 13an etxebizitza / Vivienda en Txonta 13-1º dr | 6.025,29 |
| | 1100-00004 | Lokal komertziala Argatxan 1A Local Comercial Argatxa | 74.800,00 |
| | 1100-00005 | Lokal komertziala Argatxan 5A Local Comercial Argatxa | 30.250,00 |
| | 1100-00006 | Lokal komertziala Argatxan 7A Local Comercial Argatxa | 34.100,00 |
| | 1100-00007 | Lokal komertziala Argatxan 9A Local Comercial Argatxa | 39.875,00 |
| | 1100-00008 | Lokal komertziala Argatxan 11A Local Comercial Argatxa | 33.990,00 |
| | 1100-00009 | Lokal komertziala Argatxan 13A local Comercial Argatxa | 62.865,00 |
| | 1037-00007 | Jardiñeta 30ean lokala / Local en Jardiñeta 30 | 60.200,00 |
| | 1056-00004 | Polonia Etxebarria 4an etxebizitza /Vivienda Polonia Etxebarria 4-b | 30.797,92 |
| | 1045-00005 | Matxaria 16an B pabiloia / Pabellón B en Matxaria nº 16 | 11.830,00 |
| | 1067-00006 | Asolaigartza 36 garaje-plaza / 36 Plazas de Garaje Asola Igartza | 278.649,75 |
| | 182-00001 | 67 garaje-plaza Ubitxa 22an / 67 Plazas de Garaje Ubitxa nº 22 | 633.862,86 |
| | 115-00001 | Sansaburu 98 garaje-plaza / 98 Plazas de Garaje en Sansaburu | 1.184.013,42 |
| | 1065-00005 | Bittor Sarasketan 94 garaje-plaza / 94 Garajes en Bittor Sarasketa | 1.640.375,58 |
| | 1067-00005 | Etxebizitza eta garajea Asolaigartzan 10 – C Baxua / Vivienda y garaje Asola Igartza nº 10 bajo C | 128.895,74 |
| | 1067-00004 | Etxebizitza eta garajea Asolaigartzan 10-B baxuan / Vivienda y garaje Asola Igartza nº 10 bajo B | 146.397,05 |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **4.428.022,04** |
| **1.02** | | **ORUBEAK/SOLARES** | |
| MAT | 1005-00004 | Amañan 13an lursaila /Terreno en Amaña 13 | 19.000,00 |
| | 1025-00005 | Txontan lursaila /Terreno en Txonta | 0,00 |
| | 1035-00004 | Artegietan 3-5ean lursaila / Solar en Artegieta 3-5 | 23.183,98 |
| | 1065-00003 | Bittor Sarasketa 3an lursaila / Solar garajes Bittor Sarasketa 3 | 0,00 |
| | 1090-00006 | Barrenan lur industrialeko lursaila / Terrenos parcela | 6.958,00 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | industrial en Barrena | |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **49.141,98** |
| **1.03** | | | |
| MAT | 1037-00006 | Jardiñetan birpartzelazio-proiektuaren ondorioz lursailak /Parcelas del proyecto de reparcelación Jardines | 0,00 |
| | 1021-00005 | Txaltxazelain emandako lursaila/ Terreno cedido en Txaltxazelai nº 2 | 0,00 |
| | 1046-00005 | Mekolan birpartzelazio-proiektuaren ondorioz lursailak / Parcelas del proyecto de reparcelación en Mekola. | 0,00 |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **0,00** |
| **1.04** | | | |
| MAT | 107000004 | Arratebiden 17an terraza / Terraza sita en Arrate Bide nº 17 | 0,00 |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **0,00** |
| **1.08** | | | |
| MAT | 19300000 | Solaburuan landa-lursaila / Parcela rústica en Soloburua | 0,00 |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **0,00** |
| **2.01** | 1090-00007 | Barrenan 13an askapen-eskubidea / Derecho de Levante en Barrena n 13 | 14.076,00 |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **14.076,00** |
| **5.01** | | **IBILGAILUAK/VEHICULOS** | |
| MAT | 1-20508 | Udaltzaingorako Kia Niro 1,6 HV zuria / Kia Niro 1,6 HV blanco Policía Municipal | 20.900,00 |
| | 1-15672 | Orbea Bizikleta elektrikoa / Bicicleta Eléctrica Orbea | 2.399,01 |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **23.299,01** |
| **7.01** | | **HIRI-ALTZARIAK / MOBILIARIO** | |
| | | ALTEN LABURPENA / RESUMEN ALTAS | 319.157,25 |
| | | **GUZTIRA/TOTAL** | **319.157,25** |
| | | **2017ko ALTAK GUZTIRA / TOTAL ALTAS** | **4.833.696,28** |

# 2017ko BAJAK, XEHETASUNAK/ DETALLE BAJAS 2017

| | | | |
|---|---|---|---|
| **4.01** | | **AKZIOAK/ ACCIONES** | |
| | 504-00000 | Imesako akzioak / Acciones en Imesa | 707.998,15 |
| | | **Guztira / Total** | **707.998,15** |
| | | | |
| **5.02** | | **IBILGAILUAK / VEHICULOS** | |
| | 108-14853 | Sasiak kentzeko Sthill markako makina / Desbrozadora Sthill | 730,41 |
| | 108-12591 | Sasiak kentzeko makina, hariduna / Desbrozadora de ruedas de hilos | 435,04 |
| | 108-14848 | Sasiak kentzeko Sthill markako makina / Desbrozadora Sthill | 553,49 |
| | 108-14851 | Sasiak kentzeko Sthill markako makina / Desbrozadora Sthill | 553,51 |
| | | Total | **2.272,45** |
| | | | |
| | | **ALTZARIAK / MOBILIARIO** | |
| | | BAJAK, LAPURPENA / RESUMEN BAJAS | |
| | | **Guztira / Total** | **51.970,55** |
| | | | |
| **8.01** | | **Ondasunak eta eskubide itzulgarriak / Bienes y derechos revertibles** | |
| | 115-00000 | Sansaburuko garajearen emakida /Concesión Garajes sansaburu | 1.303.247,98 |
| | 245-00000 | Ubitxako garajearen emakida / Concesión Garajes Ubitxa | 834.030,06 |
| | 118-00000 | Bittor Sarasketa garajearen emakida / Concesión Garajes Bittor Sarasketa | 1.533.752,90 |
| | | **Guztira / total** | **3.671.030,94** |
| | | | |
| | | **Guztira Bajak / Total bajas 2017** | **4.433.272.09** |

Ibañez andreak hartu du hitza; adierazi du inbentarioa eztabaida honetako gai ahaztuetako bat izan dela, eta ez garrantzizkoa ez zelako, baizik eta talde politikoek pentsatzen zutelako begi bistakoaren aurrean ezer gutxi eztabaidatu zitekeenik.

Gaineratu du iaz Mendicute jaunak aipamen bat egin zuela bikoiztasun bati buruz Egogaineko garaje batzuk inbentariatzeko orduan, eta 2016ko aurrekontua zela-eta planteatzen zuten lehentasuna zeukala jabetzak saltzeak beste premia batzuei aurre egiteko; horren inguruan alkateak zioen ikusi beharko litzatekeela zer erabilera ematen zaien garajeei, baina berak orain arte ez dakiela zer erabilera ematen ari den.

Interviene la señora Ibañez quien afirma que el inventario ha sido uno de los grandes olvidados del debate de este Ayuntamiento, y no porque no fuera importante, sino porque los grupos políticos pensaban que ante lo que es obvio, poco se puede cuestionar.

Añade que el año pasado el señor Mendicute hizo una mención a una duplicidad a la hora de inventariar unos garajes de Ego-Gain, y que con ocasión del presupuesto del año 2016 planteaban que era prioritario vender propiedades para hacer frente a otras necesidades; y que al respecto, el señor Alcalde decía que habría que ver qué utilidad se da a los garajes, pero que ella hasta hoy no se ha enterado qué tipo de utilidad se está dando.

Gaur beste inbentario bat ekarri da, jarraitu du, eta, halaber, planteatzen dute jabetzakoa den guztia saldu egin beharko litzatekeela, izan garajeak, izan lokal komertzialak, hitz batean, erabiltzen ez den guztia; izan ere, ordaindu beharreko jabetzak dira eta hondatu egiten dira, eta haiek salduta herriaren beste proiektu batzuei ekin ahalko litzaieke.

Gaineratu du aurten alta batzuk egon direla, etxebizitzak, lokal komertzialak, garajeak, eta Udalak pentsatu behar duela zer egin horrekin guztiarekin, zeren eta hutsik dauden etxebizitzen OHZ zamatzen ari baita eta Udalak ere baditu hutsik dauden etxeak.

Hoy se trae otro inventario, prosigue, y también plantean que todo lo que sea propiedad se debería de vender, sean garajes, locales comerciales, en definitiva, todo lo que no se utiliza; ya que son propiedades por las que hay que pagar y que se deterioran, y con su venta se podrían acometer otros proyectos de ciudad.

Añade que este año hay una serie de altas de viviendas, locales comerciales, garajes, y que el Ayuntamiento se tiene que plantear qué hacer con todo esto, pues está recargando el IBI de las viviendas vacías y él también tiene casas vacías.

Amaitu du esaten bere taldearen ustez historikoa ez den guztia edo zerbitzu publikoetarako behar ez dena gizartearen esku jarri behar dela, eta bildutakoa lurzorua erostera bideratu behar dela aipatutako helburuak betetzeko, eta, hala, erabiltzen ez diren ondasunak saldu eta Matxarian lurzorua erosi; eta hori egingo dutela datorren urtean, baldin eta herritarrek berriz ere erakunde honetan gobernatzeko aukera ematen badiete.

Finaliza afirmando que su grupo entiende que todos aquello que no sea histórico o no se necesite para los servicios públicos, debe de ponerse en manos de la sociedad y destinar lo recaudado a comprar suelo para cumplir con los objetivos comentados, y así, vender bienes en desuso y comprar suelo en Matxaria, siendo lo que harán el año que viene si los ciudadanos les conceden la oportunidad de volver a gobernar esta institución.

Aguirre andreak hartu du hitza; adierazi du ez dela batere mugitu ondare historikoa, eta harrigarri egiten zaiola 113 milioiko balioa duten higiezin batzuk izanik, zelan hitz egiten den izaera historikoko 134.000 euroko balioko ondasunei buruz; hortaz, uste du ez dagoela ondare historikoaren benetako baloraziorik eta Udalaren sentsibilitate falta ikusten du ondare historikoarekiko eta haren defentsarekiko.
Gaineratu du sentsibilitate handiagoa eskatzen duela legatu gisa jaso eta legatu gisa ondorengoei transmititu nahi denarekiko, ondare historiko bat ezin baita egin alkandora berri bat balitz bezala.

Interviene la señora Aguirre para decir que no se mueve para nada el patrimonio histórico y que le sorprende que con unos inmuebles por valor de 113 millones se hable de bienes de carácter histórico por valor de 134.000, por lo que ve que no hay una valoración real de lo que es un patrimonio histórico y ve la falta de sensibilidad del Ayuntamiento hacia lo que es patrimonio histórico y su defensa.
Añade que reclama mayor sensibilidad con respecto a lo que se ha recibido como legado y se quiere transmitir como legado a los que sigan, porque un patrimonio histórico no se puede hacer como una casa nueva.

Jarraian, alkate jaunak hartu du hitza adieraziz bera ez dela dena saltzearen aldekoa, eta horren haritik, hutsik dauden zazpi etxebizitza antzeman dituztela, eta planteatzen ari direla Etxebideren esku

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que él no es partidario de vender todo, y que en este sentido, han detectado siete viviendas vacías y que lo que se está planteando es ponerlo a

jartzea herritarrei alokatzeko, uste baitute hori soluzioa hobea dela saltzea baino eta gero eztabaidatzea ea zertara bideratuko den, zeren Lurzoruaren Udal Ondarera izan beharko baita.

disposición de Etxebide para que las alquilen a los ciudadanos, pues cree que esta es mejor solución que venderlo y luego discutir a qué se destina el resultado, ya que tendrá que ser a Patrimonio Municipal del Suelo.

Aurrerago dio eskatu duela eskuragarri dauden garajeen inbentarioa, eta aztertzen ari direla haietako bakoitzaren erabilera, batzuk IMESAtik eratorritakoak baitira eta ez dago haien gaineko eskuragarritasunik.

Uste du erabilerarik ez duten garajeak enkantera atera daitezkeela eta emaitza Lurzoruaren Udal Ondarera gehitu, baina bera ez da dela saltzearen aldeko; baizik eta gizartearentzat onena den helburua bilatu nahi duela.

Dice más adelante que ya ha pedido el inventario de los garajes de que se dispone, y que se está analizando el uso de cada uno de ellos porque algunos provienen de IMESA y no hay disponibilidad sobre ellos.

Sí cree, añade, que los garajes que no tengan uso se pueden sacar a subasta e incorporar el resultado al Patrimonio Municipal del Suelo, pero no es partidario de vender todo; sino de buscar el mejor fin social.

Berriz ere Ibañez andreak hartu du hitza esanez itxura denez gauzak bere bidea egiten doazela azkenean, ur-tantak bezala; izan ere, gogorarazi behar dio alkate jaunari 2016an bere taldea izan zela garajeak saltzea proposatu zuena ondarea erosteko eta 2018an aurrekontuaren akordioaren 25. puntutzat aurkeztu zutela erabiltzen ez ziren udal ondasunen inbentario bat egitea, enkantean atera daitezkeenak aztertzea eta enkantearen prozedura martxan jartzea; eta, halaber, 2016an tutoteratzapeko etxebizitzen gaiari buruz hitz egiten zutela.

Interviene de nuevo la señora Ibañez para decir que parece que al final las cosas van calando como la gota china, porque tiene que recordar al señor Alcalde que en el 2016 fue su grupo el que propuso la venta de garajes para comprar patrimonio y que en 2018 presentaron como punto número 25 del acuerdo presupuestario el realizar un inventario de los bienes municipales en desuso, estudiar cuáles son susceptibles de ser subastados y poner en marcha el procedimiento de subasta, y que así mismo en el 2016 hablaban del tema de las viviendas tuteladas.

Alkate jaunak adierazi du gurpila asmatuta dagoela, eta berak akordioak betetzen saiatzeko ohitura (ona edo txarra) duela.

Indica el señor Alcalde que la rueda ya está inventada y que él tiene la buena o mala costumbre de intentar cumplir los acuerdos.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (10): alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos afirmativos (10): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga, Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones (11): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

3.- *Gazteen emantzipazioa errazteko helburuarekin, ebaluazio bakoiztuaren bidez etxebizitzak alokairu-merkatuan jartzeko Eibarko Udalak emango dituen diru-laguntzak* arautzeko oinarri erregulatzaileen aldaketa behin betiko onartzeko proposamena.

3.- Propuesta de aprobación definitiva de las Bases reguladoras para la concesión, por parte del Ayuntamiento de Eibar, de subvenciones para la *puesta en el mercado de alquiler de vivienda con el objetivo de facilitar la emancipación de los*

*jóvenes* <u>régimen de evaluación individualizada.</u>

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Ikusita:

“Vistos:

- Hirigintzako Batzorde Aholkulariaren aldeko txostena, Bildu Udal Taldeak erreferentziazko Oinarrien 2. artikuluaren C atala aldatzeko eskatuz aurkeztutako alegazioaren inguruan, zeina honela idatzita geratuko litzatekeen:

- El informe favorable de la Comisión Asesora de Urbanismo sobre la alegación presentada por el Grupo Municipal Bildu solicitando la modificación del apartado c) del artículo 2 de las Bases de referencia, que quedaría redactado de la siguiente manera:

c) Gutxienez bizikidetza-unitateko partaideetako bat Eibarren erroldatuta egon beharko da, gutxienez 2 urte jarraian, GAOn dagokion deialdiko iragarkiaren laburpena argitaratzen denetik zenbatuta, edo gutxieneko epe hori bete ezean, Eibarren erroldatuta egon behar da 5 urtez jarraian, azken 10 urteen barruan, argitaratzen denetik zenbatuta.

Jarraitu du esaten bai Merkatarien Elkartea bai Eibar Merkataritza Zentro Irekia adituenak direla gaian eta ondoen ezagutzen dutenak zer behar duten; eta, beraz, ez dutela zalantzan jarriko haiek aurkeztutako ezer.

Eibarko merkataritzaren etorkizuna indartzeari begira, jarraitu du, agian faltan somatzen da kudeaketa, alegia, saltoki bakoitzaren barne-hobekuntza bat eman beharko litzateke, kaleak girotuz bezeroak erakartzetik haratago.

Interviene el señor López de Guereñu quien comienza diciendo que su grupo votará a favor de este punto dado que se trata de una enmienda negociada en el presupuesto, pues consideran que el comercio en Eibar es un colectivo que no se puede olvidar.

Se trata, prosigue, de apoyar a esta asociación para que con sus actuaciones mantengan a Eibar en el lugar que, como cabecera de comarca, le corresponde; siendo la apuesta de su grupo apoyar el desarrollo de la ciudad, la industria, la hostelería y el comercio.

Añade que la zona de Errebal debe de tener un plus en este aspecto ya que quizá es la más castigada de Eibar desde el punto de vista comercial, y la que ha sufrido más con las obras de Errebal y sus modificaciones, que ha derivado en el alejamiento de la actividad comercial a otras zonas.

Sigue afirmando que entienden que tanto la Asociación de Comerciantes, como Eibar Centro Comercial Abierto son las más entendidas en la materia y las que mejor conocen lo que necesitan, y que por tanto, no van a cuestionar nada de lo presentado.

De cara a afianzar el futuro del comercio eibarrés, prosigue, quizá se echa de menos la gestión, en el sentido de que habría de darse una mejora interna de cada uno de los comercios más allá de la búsqueda de clientes a través de la

animación callejera.

Aurrerago dio jende asko datorrela Eibarrera eta merkatariek ikertu beharko luketela nola hobetu eta zer eskaini, eskualdeburu-izaerari eutsiz, gehiago saltzeko eta kalitate handiagoa eskaintzeko, esate baterako, “Singular Dendak”.

Dice más adelante que viene mucha gente a Eibar y que los comerciantes deberían de investigar cómo mejorar y qué pueden ofrecer para vendar más y de mejor calidad, manteniendo el carácter de cabecera de Comarca, como por ejemplo “Singular Dendak”.

Gaineratu du etorkizunean, datorren urtean agian, ondorio batzuk atera beharko liratekeela eta bideratutako diru-kopurua egokitu, eta aztertu beharko litzatekeela ea espero zen emaitza izan duen ala ez, edo ikus zer egin behar den iritsi nahi den emaitza lortzeko, eta aurkitutako gabeziak, eta hobetu beharreko alderdiak hobetzeko; azken batean, datu zehatzekiko analisi bat egin behar da jardun ahal izateko eta hurrengo urteetan partida hori eguneratzeko.

Añade que en el futuro, el año que viene quizás, habría que sacar unas conclusiones y adaptar la cantidad de dinero destinado, y analizar si ha tenido el resultado esperado o no, o ver qué hay que hacer para encontrar el resultado al que se quiere llegar, las deficiencias encontradas, los aspectos de mejora; en definitiva, una análisis con datos concretos para poder actuar y actualizar en años posteriores esta partida.

Amaitu du esaten bere taldearentzat hiru ideia oinarrizko daudela: Errebalen merkataritzaren sustapen-plan hau babestea, Eibarren merkataritza-eskaintza hobetzen duten jarduerak egitea mehatxuak aukera bihurtuz, eta ateratzen diren ondorioen arabera jokatzea, etorkizunari begira laguntza hori hobetzeko.

Concluye diciendo que para su grupo son tres ideas básicas: apoyar este plan de activación comercial en Errebal, efectuar acciones que mejoren la oferta comercial de Eibar, intentando convertir las amenazas en oportunidades, y actuar en función de las conclusiones que se saquen para mejorar esta ayuda a futuro.

Jarraian, Errasti jaunak hartu du hitza; esan du jarduera horrek ez duela bere taldea konbentzitzen, Garapen Ekonomikoaren batzordean adierazi zuten bezala.

Interviene a continuación el señor Errasti quien afirma que por el contrario, a su grupo no le convence esta actuación, tal como ya lo comentaron en la comisión de Desarrollo Económico.

Eibar Merkataritza Zentro Irekiari hirurogei mila euro ordaindu behar zaizkie "gauza bera" egiteko, eta uste dute "gauza bera" eginez "gauza bera" lortuko dutela; eta saltoki txikiak biziberritzeko, berrikuntza gehiago behar direla eta atzean utzi behar dela barraken eredua kontsumoa sustatzeko.

Se van a abonar a Eibar Centro Comercial Abierto, continúa, sesenta mil euros más para realizar "lo mismo", y consideran que haciendo "lo mismo" se va a obtener "lo mismo", y que para la revitalización del pequeño comercio hace falta mayor innovación y dejar atrás, por ejemplo el modelo barracas para incrementar el consumo.

Gaineratu du gogoeta askoz ere sakonagoa izan behar dela, eta ez bakarrik Errebalerako, baizik eta Urkizun, Ipuruan, Legarren, edo herri osoan, beharrezkoa dela auzoen biziberritze-plan bat hirigintza-jarduketez haratago; eta merkataritzak ekarpen handia egin dezakeela, baina baita kulturak, gizarte-kohesioak edo auzoetako ikastetxeek ere.

Añade que hace falta una reflexión mucho más profunda, y no sólo para Errebal, sino en Urkizu, Ipurua, Legarre, o toda la ciudad, un plan de revitalización de barrios más allá de actuaciones urbanísticas, a la que tiene mucho que aportar el comercio, pero también la cultura, la cohesión social o los centros escolares de los barrios.

Jarraitu du esaten orain dela urte batzuk egin zela merkataritzaren biziberritze-saiakera bat Errebal-Estaziño inguruan Zona 10 sortuz, eta Udalak ez zuela gehiegi babestu.

Prosigue afirmando que hace unos años ya se hizo un intento de revitalización comercial en la zona Errebal-Estaziño con la creación de la Zona 10, que tampoco se apoyó suficientemente desde el ayuntamiento.

Badirudi, gaineratu du, guztiak izan behar duela Eibarko Merkataritza Gune Irekiaren zigilua, hainbat ekimen egon daitezkeenean haien artean sinergiak egonik, eta ezin dela ahaztu, halaber, merkatarien erdiak ez daudela elkartuta.

Parece, añade, que todo tiene que tener el sello de Eibar Centro Comercial Abierto, cuando pueden coexistir varias iniciativas con sinergias entre ellas y sin que tampoco se pueda olvidar que la mitad del comercio no está asociado.

Adierazi du, baita ere, Eibar Merkataritza Gune Irekiak kontraesana eragiten diela; izan ere, filosofikoaren aldetik saltoki txikiei lagundu nahi zaie, baina

Afirma así mismo que Eibar Centro Comercial Abierto les suscita una contradicción, ya que filosóficamente se quiere apoyar al pequeño comercio, pero

elkartearen bazkide nagusienetariko bat Corte Inglesa da.

uno de los socios mayoritarios de la asociación es El Corte Inglés.

Amaitu du esanez bere taldeak kontrako botoa emango duela, baldin eta ez bada gogoeta sakonago eta integralago bat egiten Eibarren dagoen arazoari buruz, eta saltoki txikiak eta auzoetako bizitza jasaten ari diren krisi larriari buruz.

Concluye su intervención diciendo que su grupo va a votar negativamente, mientras no se haga una reflexión más profunda y más integral del problema que hay en Eibar y de la grave crisis que está atravesando el pequeño comercio y la vida de los barrios.

Jarraian Aguirre andreak hartu du hitza; bere ustez hirurogei milia euro horiek erabil litezke herritarrak eta merkatariak, eta baita berak ere, etengabe eskatzen ari diren zerbaitetan, alegia, Errebaleko obra bereizteko hesia kentzen; zeren ia-ia ezinezkoa baita espaloitik igarotzea kolperik jaso gabe.

Saltokientzat ekintza benetan erakargarria egin nahi bada, jarraitu du, gutxieneko espazio bat egon behar da geratu ahal izateko, edo erakusleihoak ikusteko, baina bat Errebaletik pasatuz gero, aurretik eramaten dute.

Gaineratu du behin-behinekoa izan arren, zerbait egin behar dela espaloi bat izateko eta oinezkoak bi norabidetan ibili ahal izateko.

Amaitu du esaten berak ere uste duela Errebalgo merkatariak konpentsatu beharra dagoela jasaten ari diren eragozpenengatik, eta uste duela hirurogei mila euro horietarako helburu egoki bat izan litekeela oinezkoentzako bi norabide sortzea.

Interviene a continuación la señora Aguirre quien afirma que cree que estos sesenta mil euros se podrían dedicar en algo que viene insistiendo ella y la ciudadanía y los comerciantes, y es la eliminación de la valla de separación de la obra de Errebal porque casi-casi es infranqueable el pasar por la acera sin recibir un golpe.

Si se desea hacer una acción realmente atractiva para los comercios, prosigue, tiene que haber un espacio mínimo para poder pararse, o mirar escaparates, pero si uno pasa por Errebal se lo llevan por delante.

Añade que aunque sea provisional, hay que hacer algo para que se pueda disponer de una acera y conseguirse así un doble flujo de peatones.

Finaliza afirmando que ella también piensa que hay que compensar a los comerciantes de Errebal por los inconvenientes que se les están creando y que considera que un buen fin de estos sesenta mil euros sería crear un doble flujo de tránsito.

Ondoren alkate jaunak hartu du hitza adieraziz aldaketa hau zuzenketa baten ondorioa dela; eta zuzenketa hori onartu zela helburu bikoitz batekin, obrengatik zigortutako gune bat konpentsatzeko eta saltoki horiei aukera bat emateko erakargarriago izan daitezen.

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que esta modificación es consecuencia de una enmienda que aceptó el equipo de gobierno, con el doble objetivo de compensar a una zona castigada por unas obras, y de dar a ese comercio una oportunidad para poder ser más atractivo.

Gaineratu du ez dela eztabaidatzen hasiko zer ekintza egin daitezkeen, eta garrantzitsuena dela merkatariak ados jartzea egin beharreko ekintzei buruz.

Añade que no va a entrar en el debate de qué acciones en concreto se pueden hacer y que lo importante es que los comerciantes se pongan de acuerdo sobre las actuaciones a realizar.

Erakunde gisa, jarraitu du, uste du sektore batek egin dezakeen gauzarik onena elkartzea dela, horrela askoz ere errazagoa delako komunikazioa, diagnostikoa eta lan egitea, zeren biltzen ez dena banaka tratatu beharko bailitzateke, eta berak esaten die ostalariei ez dela ostalaritzarekin biltzen, ostalariekin baizik, eta haietako bakoitzak bere arazoak eta iritziak dituela.

Como institución, continúa, cree que lo mejor que puede hacer un sector es agruparse, porque así será mucho más fácil la comunicación, el diagnóstico y el poder trabajar, pues al que no se asocia habría que tratarlo de manera individual, y él ya les dice a los hosteleros que no se reúne con la hostelería, sino que se reúne con hosteleros teniendo cada uno sus problemas y sus opiniones.

Horren harira, amaitu du, ahaleginak egin behar dira ahalik eta merkatari-kopuru altuena elkartzeko, oso zaila delako banakako erantzunak ematea merkatariei, nahiz eta azpitaldeak sor litezkeen gune jakinetako merkatariekin.

En este sentido, concluye, lo que hay que intentar es que se asocien el mayor número de comerciantes porque es muy difícil dar respuestas individuales a comerciantes individuales, aunque desde luego se podrían crear subgrupos con comerciantes de zonas concretas.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (15): alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Votos afirmativos (15): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga, Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Ezezko botoak (5): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU).

Votos negativos (5): Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU).

Abstentzioak (1): Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones (1): Aguirre Unceta (IRABAZI).

5.- Alkatetzaren proposamena, Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren Eranskina aldatzeko eta diru-laguntza batzuk emateko Deialdiak onartzeko.

- “Txonta auzoan birgaitze eraginkorraren xede diren bizitegi-eraikinetako Jabe Erkidegoei diru-laguntzak ematea.
- Txonta auzoan birgaitze eraginkorraren xede diren etxebizitzetako eta lokaletako jabe diren pertsona fisikoei diru-laguntza osagarriak ematea.

5.- Propuesta de Alcaldía de modificación del anexo del Plan Estratégico de subvenciones y de aprobación de las Convocatorias para la concesión de las siguientes subvenciones:

- Subvenciones a comunidades de propietarios para la rehabilitación eficiente de edificios residenciales en el barrio de Txonta
- Subvenciones complementarias a personas físicas propietarias de viviendas y locales objeto de rehabilitación eficiente en el barrio de Txonta.

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“IKUSITA:

I.- Diru-laguntza lerro hauen inguruan Hirigintza Saileko lege-aholkulariak egin duen txostena,

II.- Diru-laguntza bien deialdiak, Hirigintza Saileko lege-aholkulariak idatzitakoak eta Oinarriak beren baitan hartzen dituztenak; Kontratazioetarako eta Diru-laguntzetarako Atalaren zuzendariaren aldeko txostena jaso dutenak,

III. Alkateak proposamenaren alde egin duen proposamena

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak proposamena bozkatu du eta emaitza hauxe izan da: aldeko botoak 4, Miguel de los Toyos, Ana Tellería, Alberto Albístegui eta Patricia Arrizabalaga jaun-andreenak; abstentzioak 5, Iñaki Penedo, Gorka Errasti, Elena Ibáñez, Eva Juez eta Mª Jesus Aguirre jaun-andreenak. Horren ondorioz, Udal Osoko bilkurari erabaki hauek har ditzan proposatzen dio:

AURRENA: Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eranskina aldatzea Hirigintza Arloari dagokion zatian honako diru-laguntza lerro hauek txertatuta:

“VISTOS.

I.- El informe que sobre estas líneas de subvención ha redactado el Asesor Jurídico del Área de Urbanismo

II.- Las convocatorias de ambas subvenciones, redactadas por el Asesor Jurídico del Área de Urbanismo, que incorporan las bases, y que han sido informadas favorablemente por el Director de la Unidad de Contratación y Subvenciones

III. La propuesta favorable del Alcalde

La Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con el siguiente resultado 4 votos a favor de D. Miguel de los Toyos, Dª Ana Tellería, D. Alberto Albístegui, Dª Patricia Arrizabalaga, y 5 abstenciones de D. Iñaki Penedo, D. Gorka Errasti, Dª Elena Ibáñez, Dª Eva Juez y Dª Mª Jesús Aguirre, y propone al Pleno Municipal adopte los siguientes acuerdos:

PRIMERO: Modificar el anexo del Plan Estratégico de Subvenciones en la parte correspondiente al Área de Urbanismo, incorporando las siguientes líneas de subvención:

| DIRU-LAGUNTZA LERROA. | HELBURUAK | BETE NAHI DIREN HELBURUAK. | URTEKO KOSTUA. | FINANTZAKE-TA: | DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA. |
|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUA: Diru-laguntzak Jabe Erkidegoei, Txonta auzoan eraikinak birgaitzeko eta hiri-berroneratze jarduketak gauzatzeko. | Auzo hura berroneratzeko, Txontan finkatuta dauden eraikinak birgaitzeko proiektuaren egikaritzea ahalbideratzea. | Inguru hura goitik behera birgaitzea, irisgarritasuna bermatzeko eta eraginkortasun energetikoaren aldeko jarduketak eginez eta eraikuntzaren oinarrizko araudia betez. | 1.900.000€ | Aurrekontuaren 7. Kapitulua | Diru-laguntza mota: Zuzeneko diru-laguntza ebaluazio bakoiztuaren araubidez. |

| DIRU-LAGUNTZA LERROA. | HELBURUAK | BETE NAHI DIREN HELBURUAK. | URTEKO KOSTUA. | FINANTZAKE-TA: | DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA. |
|---|---|---|---|---|---|
| HELBURUA: Txonta auzoan birgaitze eraginkorraren xede diren etxebizitzetako eta lokaletako jabe diren pertsona fisikoei diru-laguntza osagarriak ematea. | Auzo hura berroneratzeko, Txontan finkatuta dauden eraikinak birgaitzeko proiektuaren egikaritzea ahalbideratzea, Jabe Erkidegoei emango zaizkien diru-laguntzak osatuz. | Inguru hura goitik behera birgaitzea, irisgarritasuna bermatzeko, eraginkortasun energetikoaren aldeko jarduketak eginez eta eraikuntzaren oinarrizko araudia betez. | 200.000 € | Aurrekontuaren 7. Kapitulua | Diru-laguntza mota: Zuzeneko diru-laguntza ebaluazio bakoiztuaren araubidez. |

| LINEA DE SUBVENCION | OBJETIVOS | EFECTOS PRETENDIDOS | COSTE ANUAL | FINANCIACI ON | PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN |
|---|---|---|---|---|---|
| OBJETO: Subvenciones a comunidades de propietarios/as para la ejecución de actuaciones de regeneración urbana y rehabilitación de edificios en el barrio de txonta | Posibilitar la ejecución de un proyecto de rehabilitación sobre las edificaciones consolidadas del barrio de Txonta que regenere la zona | Rehabilitación integral de la zona que contempla actuaciones de garantía de la accesibilidad, eficiencia energética y cumplimiento de la normativa básica de edificación | 1.900.000 € | Capítulo 7 del Presupuesto | Tipo de sibvención. Subvención directa en régimen de evaluación individualizada |

| LINEA DE SUBVENCION | OBJETIVOS | EFECTOS PRETENDIDOS | COSTE ANUAL | FINANCIACI ON | PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN |
|---|---|---|---|---|---|
| OBJETO: Subvenciones complementarias a personas físicas | Posibilitar la ejecución de un proyecto de rehabilitación sobre las | Rehabilitación integral de la zona que contempla actuaciones de garantía de la | 200.000 € | Capítulo 7 del Presupuesto | Tipo de subvención. Subvención directa en régimen de evaluación individualizada |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| propietarias de viviendas y locales objeto de rehabilitación eficiente en el barrio de Txonta | edificaciones consolidadas del barrio de Txonta que regenere la zona, complementado la subvención a comunidades | accesibilidad, eficiencia energética y cumplimiento de la normativa básica de edificación | | | |

BIGARRENA: Diru-laguntzen deialdia onartzea —oinarriak beren baitan hartzen ditu— diru-laguntza lerro hauentzat. Zuzeneko diru-laguntzaren prozedura bidez emango dira, ebaluazio bakoiztuaren araubidez.

- Diru-laguntzak Jabe Erkidegoei, Txonta auzoan bizitegi-eraikinak eraginkortasunez birgaitzeko.
- Txonta auzoan birgaitze eraginkorraren xede diren etxebizitzetako eta lokaletako jabe diren pertsona fisikoei diru-laguntza osagarriak ematea.

SEGUNDO: Aprobar la convocatoria de subvenciones, que incorporan las bases, para las siguientes líneas de subvención, mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de evaluación individualizada

- Subvenciones a comunidades de propietarios para la rehabilitación eficiente de edificios residenciales en el barrio de Txonta
- Subvenciones complementarias a personas físicas propietarias de viviendas y locales objeto de rehabilitación eficiente en el barrio de Txonta

HIRUGARRENA: Diru-laguntza hauek ematetik sortuko diren gastuei aurre egiteko 2.100.000 euroko gastua onartzea, indarrean dagoen Udal Aurrekontuko 1.200.780.04.152.20 partidari egotziko zaiona. Hona hemen diru-laguntza lerro bakoitzeko banakatzea:

- Diru-laguntzak Jabe Erkidegoei, Txonta auzoan bizitegi-eraikinak

TERCERO: Aprobar un gasto por importe de 2.100.000 €, con cargo a la partida 1.200.780.04.152.20, del vigente Presupuesto de la Corporación para atender los gastos que se deriven de la concesión de las subvenciones, según el siguiente desglose por línea de subvención:

- Subvenciones a comunidades de propietarios para la rehabilitación

eraginkortasunez birgaitzeko. 1.900.000€

- Txonta auzoan birgaitze eraginkorraren xede diren etxebizitzetako eta lokaletako jabe diren pertsona fisikoei diru-laguntza osagarriak ematea. 200.000 €

eficiente de edificios residenciales en el barrio de Txonta: 1.900.000 €

- Subvenciones complementarias a personas físicas propietarias de viviendas y locales objeto de rehabilitación eficiente en el barrio de Txonta: 200.000 €

LAUGARRENA: Diru-laguntza horiek emateko bideratuko diren espedienteen instruktore Ubaldo Ortiz Hirigintza Arloko lege-aholkularia izendatzea. “

CUARTO: Nombrar instructor de los expedientes para la concesión de estas subvenciones a Ubaldo Ortiz, Asesor Jurídico del Área de Urbanismo “

Lehendabizi, Lamarain andreak hartu du hitza; adierazi du onartu beharra daukala galduta dagoela eta ez dakiela zer kapitulutan dagoen, eta espero duela hau izatea azken kapitulua eta Txontako historia beltza amaitzea, ezin baita ahaztu Iñaki Arriolak, alkate zela iragarri zuela Txonta eraistea, eta haientzat luzea izan bada, zer esanik ez auzokideentzat.

Interviene en primer lugar la señora Lamarain quien afirma que su grupo tiene que reconocer que está perdido y que no sabe en qué capítulo se está, y que espera que este sea el último capítulo y acabe la historia negra de Txonta, pues no hay que olvidar que Iñaki Arriola, siendo Alcalde anunció el derribo de Txonta y si para ellos ha sido largo hay que pensar qué habrá sido para los vecinos.

Badirudi orain gaia aurrera doala —egia esan, duela bi urte ere gaia aurrera zihoala uste izan zuten—, eta Eusko Jaurlaritzak bere betebeharrak bete dituela eta egin behar dituen inbertsioak etxebizitzak eta auzoa bera zaharberritzeko izango direla.

Parece, añade, que ahora si va el tema para adelante, aunque hace dos años también pensaron que el tema iba para adelante, y el Gobierno Vasco ha hecho sus deberes y las inversiones que va a realizar serán para la rehabilitación de las viviendas y del propio barrio.

Gaineratu du Eusko Jaurlaritza dioela eta ez Iñaki Arriola, askotan entzuten baitu hau Iñaki Arriolari esker dela, eta oso zinikoa iruditzen zaie eskerrak ematea auzoa

Añade que dice Gobierno Vasco y no Iñaki Arriola, porque muchas veces oye que esto es gracias a Iñaki Arriola, y les parece muy cínico agradecer a quien anunció el derribo

botatzea iragarri zuenari; gainera, dirua diru publikoa izanik.

del barrio, siendo además el dinero, dinero público.

Aurrerago dio Udalak konpromisoa duela, ez bada nahikoa, diru-laguntza handitzeko, baina hori oraingo konpromiso politiko bat da eta nahiko lukete bi urte barru ere konpromiso horri eustea, hala beharko balitz.

Dice más adelante que hay un compromiso del Ayuntamiento de aumentar la subvención si ésta no resulta suficiente, pero que es un compromiso político de ahora y que les gustaría que fuese también un compromiso dentro de dos años, si resultase necesario.

Gaineratu du Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzaren zati bat berroneratze-planaren bulegoa martxan jartzeko dela eta bulegoa txukun geratuko dela, baina kezkagarria egiten zaiela prestakuntzaren gaia.

Añade que parte de la subvención del Gobierno Vasco es para poner en marcha la oficina del plan de rehabilitación y que la oficina quedará bien adecentada, pero que les preocupa el tema de la formación.

Jarraitu du esaten badirela bi urte gobernu-taldeak txosten bat duela Txontako auzokideen egoera sozioekonomikoari buruz, eta, egia esan, Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduko ez balu, Udalak konpromiso moral bat izango luke Txontarekin.

Prosigue diciendo que desde hace dos años el equipo de gobierno dispone de un informe sobre la situación socioeconómica de los vecinos de Txonta y que la verdad es que si el Gobierno Vasco no subvencionase, el Ayuntamiento tendría un compromiso moral para con Txonta.

Gaineratu du joan den osoko bilkuran, Txontako elkarteko ordezkariek proposamen interesgarri bat egin zutela prestakuntza-bulegorako eta espero duela kontuan izatea.

Añade que en la sesión plenaria pasada, representantes de las asociaciones de Txonta hicieron una propuesta interesante para la oficina de formación y que espera se tenga en cuenta.

Amaitu du esaten diru-laguntza hauek ezinbestekoak direla eta bere taldeak babestuko dituela, jakinik, gainera, auzotarren ekarpen batzuk kontuan hartu direla.

Finaliza afirmando que estas ayudas son imprescindibles y que su grupo las apoyará, sabiendo además que se han tenido en cuenta algunas de las aportaciones de los vecinos.

Jarraian, Mendicute jaunak hartu du hitza; hasi da esaten hau amaitu ezineko historia

Interviene a continuación el señor Mendicute quien comienza diciendo que

dela eta Txonta edo Errebal bezalako patata beroek hor jarraitzen dutela, eta ia bi hamarkada daramatzagula proiektu horiei buruz hitz egiten.

Gaineratu du gaur oinarri hauek onartu arren, lana amaitu egiten dela eta epe luzera lan egin behar dela.

Hitz egiten da eraikinen zaharberritzeari buruz, irisgarritasuna hobetzeari buruz, eraginkortasun energetikoari buruz, eraikitzearen oinarrizko araudia betetzeari buruz, eta bere taldea ados dago horrekin guztiarekin, are gehiago, era horretako diru-laguntzak proposatu zituen behar duten auzoetarako, hala nola herriaren Ekialderako, —Plan Estrategikoak, onartu ez arren, jasotzen duen bezala—; baina eraikinen zaharberritzetik harantzago apustu indartsu bat egon behar da auzoa berroneratzeko eta horretan azeleragailua sakatu behar da eta aztertu nola txertatu hori herria ikusteko moduan.

Horren harira, jarraitu du, industria-ondarearen gainean berba egin behar da, auzoen bideragarritasunaren gainean eta herriaren gainean bere osotasunean, berdeguneak eta aisialdia ere kontuan hartuz.

Mendikute jaunak dio berroneratze urbanistiko, ekonomiko eta sozial bat sustatu behar dela, eta kultura ere izan daitekeela tresna bat borroneratzea sustatzeko, eta, horren harira, keinu bat egiten diote Txonta Kulturala ekimenari; eta Txontako auzoari buruzko azterketa sozioekonomikotik ateratako datuak

esta es la historia de nunca acaba y que las patatas calientes como Txonta o Errebal siguen ahí, llevándose casi dos décadas hablando de estos proyectos.

Añade que aunque hoy se aprueben estas bases, el trabajo culmina y hay que trabajar en un largo plazo.

Se habla, prosigue, de rehabilitación de edificios, de mejorar la accesibilidad, de eficiencia energética, de cumplir la normativa básica de edificación, y su grupo está de acuerdo con todo esto e incluso propuso ayudas de este tipo para barrios que lo necesitan, como la zona Este de la ciudad, tal como recoge el Plan Estratégico, no aprobado, pero que más allá de la rehabilitación de edificios tiene que haber una apuesta fuerte para la regeneración del barrio y en ello hay que pisar el acelerador y ver su encaje en la forma de ver la ciudad.

En este sentido, continúa, hay que hablar también de patrimonio industrial, de viabilidad de los barrios y de la ciudad en su conjunto, de zonas verdes y de ocio.

Dice más adelante que hay que impulsar una regeneración urbanística, económica y social, pudiendo también ser la cultura una herramienta para impulsar la regeneración, y en este sentido, hacen un guiño a la iniciativa Txonta Kulturalea, y los datos que salen del estudio socioeconómico del barrio de Txonta son preocupantes, por lo

kezkagarriak dira, eta, hortaz, ez da bakarrik eraikinen zaharberritzeari buruz hitz egin behar.

que no sólo hay que hablar de la rehabilitación de los edificios.

Esan du, halaber, kezkagarria egiten zaiela diru-laguntza osagarrietarako konpromiso politikoa, ez direlako zifrak ezagutzen; eta konpromisoak hartzeko orduan, garbi eduki behar dira inbertsio-gaitasuna eta -beharrak.

Afirma así mismo que les preocupa el compromiso político para las subvenciones complementarias, puesto que se desconocen las cifras; y a la hora de asumir compromisos hay que tener claras la capacidad y las necesidades de inversión.

Gaineratu du ados daudela oinarriekin, baina kezkatuta daudela auzo honen etorkizun-erronkekin, eta atentzioa eman diela komunikabide batean aipatzeak diru-laguntza jaso behar zuen eraikin bat, eta, aldi berean, jakinaraztea eraikin hori bota beharreko eraikin bat dela.

Añade que están de acuerdo con la bases, pero que tienen la preocupación por los retos de futuro de este barrio y que sí les ha llamado la atención de que en un medio de comunicación se hablase de un edificio que va a ser objeto de ayudas, y a su vez, se informaba que ese edificio va a ser uno de los edificios a derribar.

Amaitu du esaten uste dutela hirigintza-batzordeak gogoeta serio bat egin behar duela hasierako irtenbidearen gainean eta beste irtenbide posible batzuen gainean, eta egin beharreko gogoetak eta kuantifikazioak falta direnez, abstenitu egingo direla.

Finaliza afirmando que creen que la Comisión de urbanismo debe de hacer una reflexión seria sobre la alternativa inicial, y otras posibles alternativas, y que a falta de reflexiones y cuantificaciones que se deben de hacer, se van a abstener.

Jarraian Aguirre andreak hartu du hitza esanez hausnarketa bat egin nahiko lukeela egiten diren eta praktikara eramaten ez diren azterketen gainean, batzuetan irakurri ere egiten ez direnak; eta, hala, udalera iritsi bezain laster, berak Juan Luis Tueros jaunari galdetu zion ea zerbait zegoen idatzita Txontari buruz eta hark Magne arkitekto-estudioaren esteka

Interviene a continuación al señora Aguirre para decir que desearía hacer una reflexión sobre los estudios que se hacen y que no se llevan a la práctica, y ni se leen y que así, nada más llegar al ayuntamiento preguntó a Juan Luis Tueros si había algo escrito sobre Txonta y éste le dio el enlace del estudio de arquitectos Magne que le pareció muy interesante con datos de

eman zion, eta, oso interesgarria iritzi zion, aztertutako bazter eta leku guztien datuak baitzituen.

todos los rincones y sitios estudiados.

Gaineratu du gauza bera gertatzen dela Murrategirekin ere; kasu horretan lana Itsaso Goñik egin duela, baina kaxoietan geratzen dela.

Añade que lo mismo ocurre con Murrategi, pues en este caso el trabajo lo ha hecho Itsaso Goñi, pero que queda en los cajones.

Amaitu du esaten berak zera aldarrikatzen duela: gastu bat egiten bada, eta proposamen bat badago eta interes bat auzo jakin batean, serio har dadila eta praktikara eraman dadila, zeren kontua ez baita bakarrik datuak izatea, behartzen edo orientatzen duten ekimenik izan gabe.

Finaliza diciendo que ella revindica que si se hace un gasto, y hay una propuesta y un interés en un barrio determinado, se tome en serio y se lleve a la práctica pues no se trata de tener tan solo datos, sin derivar en iniciativas que obliguen u orienten.

Jarraian Iraola jaunak hartu du hitza; hasi da esaten egin dena izan dela jabekide-komunitateei, Txontako Mahaiari eta auzokideen elkarteei jakinaraztea hau urrezko aukera bat dela obraren % 60-ko diru-laguntza bat eta beste osagarri bat jasotzeko.

Interviene a continuación el señor Iraola quien comienza diciendo que lo que se ha hecho es comunicar a las comunidades de propietarios, a la Mesa de Txonta y a las asociaciones de vecinos que esta es una oportunidad de oro para acogerse a una subvención que supone el 60% de la obra, además de la ayuda complementaria.

2.300.000 euro horietatik, jarraitu du, 1.900.000 euro bideratuko dira eraikinen zaharberritze integral eta eraginkorrerako; 200.000 euro Txontako bulegoa martxan jartzeko eta beste 200.000 euro gehiago diru-laguntza osagarrien funts bat sortzeko, Udalaren beraren erabakiz; erabakia, hain zuzen, inork kontu egiten ez omen duen dokumentu horren ondorio da; izan ere, diru-laguntza hori sortu da ikusi delako 1.900.000 edo 2.100.000 euroekin, txosten horretan jasotako errealitate ekonomikoa dela-eta, bizilagun asko

De estos 2.300.000 euros, continúa, se van a destinar 1.900.000 euros a lo que es rehabilitación integral y eficiente de los edificios, 200.000 euros a la puesta en marcha de la oficina de Txonta y los otros 200.000 euros adicionales para la creación de un fondo de ayudas complementarias por decisión del propio Ayuntamiento, decisión derivada de ese documento que parece que nadie le presta atención, pues en efecto se crea esta ayuda visto que con los 1.900.000 euros ó 2.100.000 euros podría haber vecinos que por su realidad

ezingo luketela diru-laguntzarik jaso.

económica reflejada en ese informe, no podrían acceder a las ayudas.

Era horretan, jarraitu du, diru-laguntza arruntekin eta ez-ohikoekin, baliteke kasu batzuetan obren % 100eko diru-laguntza jasotzea.

De esta forma, prosigue, con las ayudas ordinarias y las extraordinarias, puede haber casos que lleguen a recibir un ayuda del 100% de las obras.

Aurrerago dio hala dela, dirua Eusko Jaurlaritzatik datorrela, baina, egia esan, Eusko Jaurlaritzak ez du borondaterik izan diru-laguntza hau aurrera eramateko Kontseilari bat egon den arte gaia mahai gainean jarri duena; izan ere, hau Eusko Jaurlaritzaren apustu bat da, baina baita Udalarena ere.

Dice más adelante que ciertamente este es un dinero que viene del Gobierno Vasco, pero que lo cierto es que el Gobierno Vasco no ha tenido voluntad de llevar a cabo esta subvención hasta que no ha habido un Consejero que ha puesto el tema encima de la mesa, porque esta es un apuesta del Gobierno Vasco y también una apuesta municipal.

Amaitu du esaten lotzeko dagoela Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza etxebizitza babesturako, bai eta Txontako ipar partearen garapenerako ere, zeina hirugarren baten esku baitago.

Finaliza afirmando que está pendiente la ayuda del Gobierno Vasco para la vivienda protegida y que también está pendiente el desarrollo de la parte norte de Txonta, que va a depender de un tercero.

Atzera ere Mendicute jaunak hartu du hitza; esan du egia dela urrezko aukera bat dela Txontako auzotarrentzat, zor handia zeukatelako erakundeek auzo honekiko.

Interviene de nuevo el señor Mendicute para decir que efectivamente es una oportunidad de oro para los vecinos y vecinas del barrio de Txonta porque en efecto existía una gran deuda por parte de las instituciones para con este barrio.

Bestela, egingo genukeen galdera litzateke zergatik Txontan bai eta beste auzo batzuetan ez; izan ere, ez dago azterketa sozio-urbanistikorik auzo guztiena, baina badaude herri guztiari dagozkion datuak adierazten dutenak badirela Txontako oso antzeko egoerak, eta horregatik jarraitzen dutela aldarrikatzen etxebizitzen

De lo contrario, continúa, la pregunta que se harían sería por qué en Txonta sí y en otros barrios no, pues no hay estudios socio urbanísticos de todos los barrios, pero sí hay datos de toda la ciudad que indican situaciones de necesidad muy semejables a las que se pueden dar en Txonta, y por ello siguen revindicando un

zaharberritze-plan bat Ekialdeko gunean.

futuro plan de rehabilitación de viviendas en la zona Este.

Zera gaineratu du Mendicute jaunak: kontziente izanik 200.000 euroak ez direla aski izango konpentsazio-laguntzetarako, oraindik ez dakigula zenbatekoa izango den etorkizunean beharko den diru-kopurua, eta garrantzitsua litzatekeela herritarren aurrean diru-laguntza osagarri horiekiko konpromiso politikoak kosta ahala kosta hartu aurretik, zenbat kosta daitekeen jakitea.

Añade que siendo conscientes de que los 200.000 euros no va a ser suficientes para las ayudas de compensación, se sigue sin saber cuánto va a ser el importe necesario a futuro y que sería importante que antes de adquirir compromisos políticos ante la ciudadanía de estas ayudas complementarias cueste lo que cueste, estaría bien saber cuánto puede costar.

Amaitu du esaten zalantza hori joango dela argitzen denborarekin eta eskerrak eman beharko zaizkiola Kontseilari jaunari, baina, edozein kasutan ere, oinarriak Gobernu Kontseilu batetik pasatzen direla, eta, hortaz, eskerrak Gobernu Kontseilu guztiari eman beharko zaizkiola.

Finaliza afirmando que esa incógnita se irá resolviendo con el tiempo y que habrá que dar las gracias al señor Consejero, pero que en cualquier caso las bases pasan por un Consejo de Gobierno y que por tanto el agradecimiento será extensivo a todo el Consejo de Gobierno.

Berriz ere Iraola jaunak hartu du hitza adieraziz diru-laguntza osagarriak aipatutako txostenean oinarritu direla eta kalkuluak eginda dauzkatela, baina kalkulu horiek zailak direla balizko eskatzaileen elkarbizitza-unitatearen eta haien diru-sarreren gainean egiten direlako; eta konpromiso bat dagoela falta den guztia Udalak jartzeko, eta kalkulatutako datuen arabera, kopurua laurehun mila eta bostehun mila euroren artekoa izango litzatekeela.

Interviene de nuevo el señor Iraola quien afirma que las ayudas complementarias se han basado en el informe mencionado y que tienen hechos los cálculos, pero que esos cálculos son difíciles porque se hacen sobre la unidad convivencial de los posibles demandantes y de sus ingresos, por lo que existe un compromiso de que todo lo que haga falta se complementará por parte del Ayuntamiento, y que según los datos calculados la cifra estaría entre los cuatrocientos mil y quinientos mil euros.

Alkateak Bilduri adierazi dio

El señor Alcalde afirma que el único que

Kontseilariaren izena eta abizena eman duten bakarra eurak izan direla, eta argitu nahi du komunikabide horri idazki bat igorri zaiola bota beharreko eraikinen inguruko akatsa zuzen dezan eskatuz.

han dado nombre y apellido del Consejero ha sido el grupo Bildu, y que tiene que aclarar que a ese medio de comunicación se le ha remitido un escrito solicitándole que subsane el error en cuanto a los edificios a derribar.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (16): alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga, Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos afirmativos (16): Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga, Iraola Iriondo (PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga, Penedo Eubieta (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI)..

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak (5): Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Abstenciones (5): Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

<u>6.- DINERCAR ATRES SM sozietateak, Txaltxa Zelai parkingeko kontzesionarioak, aurkeztutako idatzia, sozietateko kapital sozialaren ehuneko ehunaren titularitatea INDIGO INFRA ESPAÑA SA merkataritza-sozietatera eskualdatzeko duen interesa adieraziz, eta honako hau eskatuz:</u>

<u>6.- Escrito presentado por DINERCAR ATRES, S.L. concesionaria del parking de Txaltxa Zelai, manifestando su interés en transmitir la titularidad del cien por cien del capital social de dicha sociedad a la mercantil INDIGO INFRA ESPAÑA SA y solicitando lo siguiente:</u>

c) Jakinaraz dakiola kapital sozialaren ehuneko ehun eskualdatzearen eragiketak administrazio-emakida dakarren ala ez, eta Udalaren aldez aurretiko baimen berariazkoa behar duen.

c) Que se le informe sobre si la operación de transmisión del cien por cien del capital social supone o no un caso de transmisión de la concesión administrativa que requiera la previa y expresa autorización por parte del Ayuntamiento

d) Hala beharko balitz, baimen hori eskatutzat har dadila.

d) En caso afirmativo que se tenga por solicitada dicha autorización.

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Kontratazio eta Diru-laguntza Ataleko zuzendariak egindako txostenean hauxe dio:

“En relación con este asunto, el Director de la Unidad de Contratación y Subvenciones en su informe expone:

I.- Deskribatutako eragiketak Udalaren aldez aurretiko baimen berariazkoa behar duen:

I.- Sobre si la operación descrita requiere autorización previa y expresa del Ayuntamiento:

Planteatzen den kontua da ea parkinga kudeatzen duen enpresaren akzioen titulartasunaren aldaketa batek —pertsonalitate juridikoa mantendu egiten da— emakidaren titulua eman duen Administrazioaren baimenik behar duen.

La cuestión que se plantea es si un mero cambio en la titularidad de las acciones de la empresa que gestiona el parking –que no de su personalidad jurídica, que se mantiene- requiere autorización de la Administración concedente del título concesional.

Erantzuna baiezkoa da, eta jasota dago Estatu Kontseiluaren hainbat Irizpenetan (3375/2001, 2578/1998, 998/1994 y 1507/1993).

La respuesta es afirmativa, y se recoge en varios Dictámenes del Consejo de estado (3375/2001, 2578/1998, 998/1994 y 1507/1993)

Irizpen horietan, parekatu egiten dira akzioen edo partaidetzen eskualdaketa eta

En estos dictámenes se viene a equiparar la transmisión de acciones o

kontratu-lagapena; bai osorik bada, bai titulu horien zati esanguratsu bat bada, kontrol-aldaketa bat dakarrena.

participaciones a una cesión del contrato, tanto si es total como de una parte significativa de dichos títulos que suponga un cambio de control.

Horren ondorioz, beraz, merkataritza-eragiketa horrek kontratuaren lagapenaren araubide berbera izan beharko luke, eta, aldez aurretiko baimena eskatu beharko litzateke.

Consecuencia de ello sería, por lo tanto, que dicha operación mercantil debería de someterse al mismo régimen de autorización previa que la cesión del contrato.

II.- Baimenari buruz

II.- Sobre la autorización

Beraz, argitu ondoren eragiketak aldez aurretiko baimeneko araudi bat izan beharko lukeela, hurrengo kontua da zehaztea ea kontratuak lagatzeko Agirian jasotako baldintzak betetzen diren:

Aclarado que la operación debería someterse a un régimen de autorización previa la cuestión siguiente es determinar si se cumplen los requisitos recogidos en el Pliego para la cesión de contratos, que son los siguientes:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik baimendu dezala.

b) 10 urteko epe bat gutxienez igaro dadila, eskualdatzearen ustiapena hasi zenetik.

c) Lagapen-hartzaileak gaitasuna izan dezala Administrazioarekin kontratatzeko.

a) Que el órgano de contratación autorice expresamente y con carácter previo la transmisión.

b) Que haya transcurrido al menos un plazo de 10 años desde que se inició la explotación de la transmisión.

c) Que el cesionario tenga capacidad para contratar con la Administración.

Lehenengo baldintzari dagokionez, lagapena 1997koa da, beraz, betetzen da gutxieneko ustiapen-epea.

Con respecto al primero de los requisitos, la concesión data el año 1997, por lo que se cumple de sobra el plazo mínimo de explotación.

Bigarren baldintzari, alegia, INDIGO INFRA ESPAÑA SAU sozietatearen

Con respecto al segundo, la capacidad y solvencia de INDIGO INFRA ESPAÑA

gaitasunari eta kaudimenari dagokienez, uste dut, enpresak espedientean aurkeztu duen dokumentazioarekin, egiaztatutzat jo daitekeela baldintza hori, ulerturik gaituta dagoela kontratuaren xede diren prestazioak burutzeko.

SAU, considero que con la documentación aportada al expediente por la empresa puede darse por acreditado este requisito, entendiendo que está capacitada para el eficaz desarrollo de las prestaciones objeto del contrato

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeko kideek azaldutako txostena aztertuta, proposamena bozkatu dute eta hauxe izan da emaitza: 4 aldeko boto, Miguel de los Toyos, Ana Tellería, Alberto Albístegui eta Patricia Arrizabalaga jaun-andreenak, eta 5 abstentzio, Iñaki Penedo, Gorka Errasti, Elena Ibáñez, Eva Juez eta Mª Jesús Aguirre andreenak; eta Udal Batzarrari hauxe proposatzen dio:

Los miembros de la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio habiendo dispuesto con anterioridad del informe expuesto, se procede a la votación de la propuesta con el siguiente resultado 4 votos a favor de D. Miguel de los Toyos, Dª Ana Tellería, D. Alberto Albístegui, Dª Patricia Arrizabalaga, y 5 abstenciones de D. Iñaki Penedo, D. Gorka Errasti, Dª Elena Ibáñez, Dª Eva Juez y Dª Mª Jesús Aguirre, y propone al Pleno Municipal

- BAIMENDU DADILA DINERCAR A TRES SM sozietatearen kapital sozialaren ehuneko ehunaren titulartasuna INDIGO INFRA ESPAÑA SA sozietatearen alde eskualdatzeko proposamena. “

- Que se AUTORICE la propuesta de transmisión la titularidad del cien por cien del capital social de DINERCAR A TRES SL a favor de la mercantil INDIGO INFRA ESPAÑA SA “

Aguirre andreak adierazi du akats bat dagoela jasotzen denean “lehen baldintzari dagokionez”, bigarrena baita.

Indica la señora Aguirre que hay un error cuando se recoge “con respecto al primero de los requisitos”, ya que es el segundo.

Irizpena bozkatu eta onartu egin da emaitza honekin:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak (10): alkatea, Albistegui

Votos afirmativos (10): Alcalde, Albistegui

